

Festazaleak hartzeko prest eta gogotsu daude Etxeberri plazan

Asteburuan jaietan murgilduko dira / 8

Hormak, dotore

Kolorez eta irudiz bete dituzte Andoaingo hainbat horma, Udalaren ekimenez / 10

**Merezitako omenaldia
jaso zuten Donostian
Elutxetako eta
Gaztañagako
sagardogileek / 4**

**Euskaldunak
Ohorezko Mailan
egingo du debuta,
Mutrikun, larunbat
arratsaldean / 14**

IRAILAK 13
LARUNBATA-16:30

GALARRETA
JAI ALAI

QR CODE

ORLA MENDI

K

83 sukia

AIURRI

1. PARTIDA (PLAYOFF ORIAMENDI ERREMONTE TXAPELKETA)
GURRUTXAGA · APEZETXEA VS
SUSPERREGI · ZUBIRI

2. PARTIDA (BURUZ BURUKO, 30 TANTORA)
ANSA II VS
JUANENEA

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
GOIKOETXEA V · BARRENETXEA IV VS
EZKURRA II · LARRAÑAGA

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Lucia Saiz urnietarra larrialdiko harrera-familia ordezkaria, Maite Peña Zainketa eta Gizarte Politiketako diputatua eta Maitane Carcamo Familia-Harrerako eta Adopzioko atalburua, aste honetan egindako agerraldian. GIPUZKOA

Harrera-familia baten zain dira adin txikiko hainbat haur

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako sailak sentsibilizazio-kanpaina abiarazi du

Erredakzioa GIPUZKOA

Harrera-familien premia dago Gipuzkoan. Foru Aldundiak datu bidez neurtu du behar hori: une honetan, 0 eta 3 urte bitarteko 10 haur artatu ditzaketen familiak behar dira. Adin-tartea 6 urtera arte zabalduz gero, 18 adintxikikok behar dute; beraz, 28 dira, guztira, larrialdiko familia behar duten haurrak.

Maite Peña Zainketa eta Gizarte Politiketako diputatuak aste honetan egindako agerraldian nabarmendu duenez, familia-harrerak funtsezkoak dira adintxikiko horien ongizatea bermatzeko. Guztira, Foru Aldundiak 885 adintxikiko tutoretzen ditu; horietatik 556 zentroetan bizi dira eta 329 harrera-familiekin daude. Diputatuak nabarmendu zuenez, "harrera-familiak Gipuzkoako balio onen ere du dira: etxeko atea

irekitzen dizkiete behar duten haur eta nerabeei. Komunitate solidario eta arduratsua gara, pertsona ahulenak babesteko antolatzen dena. Haurren ongizatea bermatzea da gure lehen-tasuna". Era berean, diputatuak bereziki eskertu zuen programan parte hartzen duten familien lana: "Ez da beti erraza: erronkak, zalantzak eta beldurrak daude, baina baita ilusio, ausardia, maitasun eta konpromiso handia ere. Horrek guztiak ezin hobeto definitzen du harrera-familia izateak esan nahi duena".

Informazio osagarria

Harrera-familia programari buruz gehiago jakin nahi duten herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jar daitezke 682 554 433 telefono zenbakira deituz edo gipuzkoa.eus webgunea kontsultatuz.



Maribel Vaquero. EAJ-PNV

Uzturre Foroan parte hartuko du Maribel Vaquerok

Erantzukizun handiko postuetan lanean ari diren kargu jeltzaleak batuko dituzte, ostegun honetan

Erredakzioa URNIETA

Ikasturte politikoa hasi berritan, Uzturre Foroak euskal politikarien arteko solasaldia antolatu du. Ekitaldia Tolosako TOPIC aretoan izango da, arratsaldeko 19:00tan hasita. Xabier Euzkitzek gidatuko du. Tartean da Maribel Vaquero urnietarra, Espainiako Kongresuko diputatua. Harekin batera, honatx solaskideak: Maria Eugenia Arrizabalsa, EAJren Gipuzko Buru Batzarreko presidentea; Eider Mendoza, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Maria Ubarrerekena, Eusko Jaurlaritzako bozeramailea; eta, Oihane Agirregoitia, Europarlamentaria.

KOMUNITATEA

GANBO ITURRI KULTUR ELKARTEA - ELKARBIZI ANDOAIN

Liburu-aurrekezpene

Irailaren 18an, 19:00etan, Mercero Gunean, Lasarte-Oria, "ETA: la memoria de los detalles" liburuaren aurkezpena egingo da. Joseba Eceolazaren lanak ETArek historia xehetasun bidez aztertzen du, kontakizunen, dokumentuen eta lekukotasunen bidez, indarkeria-egoeren konplexutasuna gertutik ulertzeko aukera emanez.

Aurkezpenean Imanol Lizarralde eta Josu Elespe izango dira, liburuaren edukiak eta garrantzia historikoa aztertuko dituztenak, eta publikoari gertaeren eta haien ondorioen inguruko giltzarriak eskainiko dizkiote.

Ekitaldiak aukera paregabea eskaintzen du Euskal Herriko historia hurbileko kapitulu bat gertutik ezagutzeko eta gertakari horien memoria eta dokumentazioa hausnartzeko.

Sarrera libre, aforoa bete arte.



Joseba Eceolaza. WIKIPEDIA

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia



Dozenaka lagun elkartu ziren Goikoplazan, aurreko ostiralean, Gernika-Palestina ekimenak deituta. AIURRI

Palestina gogoan, Goikoplazan

Azken asteotan palestinarrekiko elkartasun-keinuak biderkatzen ari dira. Vueltak Euskal Herria zeharkatu zuenean bide bazterrak Palestinako banderaz bete ziren eta, aurreko ostiralean, elkarretaratze jendetsua egin zuten Andoainen

Xabier Lasa ANDOAIN

Palestinarekiko elkartasunak oihartzun zabala izan du Euskal Herrian, azken bi urteotan. Azken asteotan elkartasun hori areagotu egin da, bereziki, Israelek egunero-egunero egiten dituen hilketen eraginez. Espainiakko Vuelta Bilbotik pasa zenean lasterketaren amaiera eten egin zen eta irudi horrek zabalkundea izan du mundu osoan. Aurreko ostiralean, Gernika-Palestina herri ekimenak deituta, elkarretaratzeak deitu zituzten udalerrri guztietan. Andoainen Goikoplazan deitu zuten bilkura eta deialdiak dozenaka herrikideren babesa jaso zuen: adin guztietako andoaindarrak elkartu ziren eta, hainbat minutuz, lapikoa eta txistua joz aritu ziren. Palestinako bandera eraman zutenak ez ziren gutxi izan.

Ekimenaren sustatzaileak

Gernika-Palestina deialdi herri-tarra 2023ko urrian jaio zen Euskal Herrian: "Israel eta Palestinaren arteko gatazkan emandako azken gertaerak sortutako arduratik. Geroztik, eta bereziki Gazan, Israelgo estatuak palestinarren aurkako genozidio saiakeraren aurrean jarri du mundua. Milaka herritarren heriotzak probokatuz. Nagusiki haurrak. Baina ez hori bakarrik; baita miloi bat desplazatu, giza hondamendia eta nazioarteko legediaren aurkako jardun iraunkorra ere. Gernikako bonbardaketaren herria gara, eta lehen eskutik ezagutzen ditugu suntsipenaren ondorioak. Gernika berririk ez ohiukatzeko beharra dugu, beraz, euskal herritarrok. Ezin dugu horrelakorik onartu.

Sarraski honen aurrean ezin dugu ixilik egon, ezin besoak



gurutzaturik geratu. Beste eze-zen gainera, premiazkoa da ondorio latzak izaten ari den eskalada belikoa gelditzea eta bake eta itxaropen etorkizuna eskaintzea".



Eukene Villasantek irakurri zuen adierazpena. AIURRI

Gernika-Palesinaren adierazpena

"Berriz ere sumintzen gaitu Palestinako herriaren aurkako genozidioa gogortu izanak. Gazako azpiegitura guztiak sistematikoki suntsitu ondoren, Israelek jarraitzen du palestinar herritarrek sarraskitzen eta, gainera, gosez eta egarritz hiltzen, erortzearen dauden ospitaleei sistematikoki erasotzen eta genozidio hau munduari transmititzen dioten komunikabideetako ehunka langile hiltzen.

Israel eta Benjamin Netanyahu berehalako su-etena aldarrikatzera, negoziazioaren bideari ekitera, Gazatik erretiratzera, premiazko laguntza humanitarioa ez oztatzera eta desnutrizioaren aurka borrokatzeko eta gutxieneko bizi-baldintza duinak ziurtatzeko azpiegiturak berreraikitzen behartzeko unea da:

Europar Batasunak eta hura osatzen duten estatuak tresnak dituzte Israelgo Gobernuaren jarreraren nabarmen eragiteko. EB eta bere estatu kideak dira Israelen lehentasunezko merkataritza bazkidea eta arma hornitzaile nagusietako bat.

Tokiko erakundeek dinamika berean kokatu behar dute, eta gaur egun dituzten harreman instituzional, komertzial, kirol harreman eta mota guztietakoekin amaitu.

Ekintzaren unea da: harreman komertzialak hautsiz eta Israel isolatzeko zigorak abian jarri. Hori ez egitea munduaren aurrean geure burua gutxiesten eta etorkizuneko belaunaldien aurrean erretratatzeko da".



Elutxetako Juanjo Urruzola eta Begoña Etxabe eta Gaztañagako Maria Angeles Garmendia eta Jose Angel Gaztañaga. SAGARDOA ROUTE

Merezitako omenaldia, sagardogileei

Aurtengo Sagardo egunean protagonista izan dira Elutxetako Juanjo Urruzola eta Begoña Etxabe, Gaztañagako Jose Angel Gaztañaga eta Maria Angeles Garmendia eta ateak itxi berri dituen Otsuenea sagardotegiko sendia

Erredakzioa DONOSTIA

Donostiako Sagardo Eguna hitzordu seinalatua da sektorea-rentzat. Egun horretan, 2025ean 65 urte egin edota sagardogintza lanak utzi dituzten sagardogileak omendu ohi ditu Gipuzkoako sagardogileen elkarteak. Aurre-

ko urteetan omendu dituzte, besteak beste, Altuna eta Setien sagardotegietako arduradunak. Aurten, protagonistak, Urnietako Elutxetako eta Andoaingo Gaztañagakoak izan dira. Ekitaldi hunkigarria izan zen, ibilbide oparoa egin dutenei aitor-

tza egin zitzaielako. Lore-sorta bana jaso eta omenezko aurrekua dantzatu ostean, Aitor Mendiluzek eta Amets Arzallusek bertsolariek abestu zuten. Eta, jarraian, sektore osoa batuta, topa egin zuten. Ahaztezina izango da, omenduentzat.



Ohorezko aurrekua dantzatu zieten aurtengo omenduei. SAGARDOA ROUTE

Donostiako Sagardo Eguna



Sagardoaren sektoreko kideek topa egin zuten unea. SAGARDOA ROUTE

Topa! Kopa eta edalontzia eskuetan, topa egin zuten dozenaka lagunek. Sagardogileak, sagardozeak eta hainbat erakundeetako ordezkariak elkartu ziren larunbat eguerdian, Donostiako Konstituzio enparantzan.



Mizpiradi sagardotegiko Jon Mikel Arruabarrena. SAGARDOA ROUTE

Botilaratutako sagardoa Sagardogileek dagoeneko uza berrian dute burua. Donostian, iaz botilaratutakoa banatu zuten sagardogileek. Andoaindik eta Urnietatik Altuna, Oianume, Gaztañaga eta Mizpiradiko sagardogileak hurbildu ziren.



Jendetza elkartu zen Konstituzio plazan. SAGARDOA ROUTE

Arrakasta handiko eguna Sagardogileentzat erreferentziazko hitzordua da Donostiakoa. Irudia ikustea besterik ez dago: plaza jendez lepo beteta. Aurten, gainera, eguraldi onak sagardoa dastatzeko gogoa biderkatu zuen.

Elkarretaratzea egingo dute, ostegunero

Errespetatu Andoain herri plataformak auzo-bilera errondarekin aurrera darrai. Hurrengo irailaren 11n izango da, Zumeatarra elkarte, arratsaldeko 18:30ean hasita. Bien bitartean, ostegunero, elkarretaratzea egingo dute Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN
Gipuzkoako Foru Aldundiak Bazkardon burutu nahi duen Lazo deritzon proiektuari "desadostasuna agertzeko eta saihesbidearen alde agertzeko" ekimen betean da Errespetatu Andoain plataforma. Uda ostean ere, auzoz auzoko bilerak egiten ari dira: aurreko asteburuan, Urigainen, eta, ostegun honetan, Zumeatarra elkarte. Era berean, ostegun goizero Goikoplazan elkarretaratzea egiteko asmoa dute.
Data hauetan, hiru urte atzera, indar biziz abiatu zen N1 eta A15 lotuneari irtenbidea emateko giza-mugimendua.



Bilkura egin zuten, aurreko ostegunean, Goikoplazan. AIURRI



Informazio-panela Udal Liburutegian. AIURRI

Bi aukera, eskuorrian jasota

A-15 eta N-1aren arteko loturaren gaineko bi alternatibak ezagutarazteko eta iritzia jasotzeko gizarteratze-prozesua jarri zuen abian Andoaingo Udalak, uztailean. A-15 eta N-1 arteko loturak hobetzeko bi alternatibaren gaineko xehetasunak (helburua, ezaugarriak, onurak, eragozpenak...) biltzen dituen esku-orria etxetik etxera banatu zituzten udan, eta oraingoan, zazpi informazio gune jarri ditu herriko eremu estrategikoetan.
Hain zuzen, Udaletxeko sarreran, Arrate pilotalekuan, Urigain etxean, Bastero Kulturgunean, Udal Liburutegian, Allurralde kirolegian eta Ambrosia Olabide eraikinean ipini diren informazio-gunetan, azalpen-euskarri bat eta aurkeztu diren bi alternatibaren gaineko informazio-eskuorriak topa daitezke.



Euskara eroso ikasi eta bizi



EUSKARA-IKASTAROAK

Urnietako AEKn

MATRIKULAZIOA ZABALIK!

Irailaren 2tik 26ra.

- Maila guztiak / Aurrez aurreko taldeak
- Dirulaguntza bereziak (A1 eta 16-18 urtekoentzat)
- Zilegi Eskola-Mintzalagun-Hikalagun-Gurasolagun.

Matrikulazioa eta informazioa:
San Juan 42, 1. solairua (Dendaberri)
662 338 747 · urnieta@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Urnietak: matrikularen % 100, gehienez, langabetuentzat eta % 85, gehienez, langileentzat.

HABEren dirulaguntza % 100era arte maila gaindituz gero.

"Hiztun aktiboak sortzea dugu helburu"

OLATZ PEÑAGARIKANO IRAZUSTA ANDOAINGO AEK EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA Urriaren lehenean ekingo dio ikasturteari AEK-k. Matrikulazio-kanpaina daude murgilduta orain eta irailaren 23ra arte izango dute aukera herritarrek izena emateko



Andoaingo AEKko taldea, Udaleko Euskara Saileko arduradunekin batera. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zer moduz amaitu zenuten joan den ikasturtea?

Gutxi gorabehera, bai Andoaingo euskaltegiko ikasleak, bai Tolosaldekoak kontuan hartuta, izan ere, gela desplazatuak ditugu, guztira, 245 ikasle izan genituen. Ondo baloratzen dugu. Kopuru polita dela iruditzen zaigu. Iaz, oso giro ona eta sana sumatu genuen, bai ikasleen artean, bai irakasleen artean. Gainera, askotariko profiletako ikasleak gerturatzen dira gurea eta inportantea da ikustea hasierako mailatan badela jendea, hurbiltzen dela. Ez direla, soilik, titulua ateratzera datozenak, profil hori ere badaukagu eta.

Uda sasoiko atsedena eginda, indarrez eutsi al diozue iraileko txanpari?

Klaseei ekin aurretik matrikulazio-garaia eduki ohi dugu. Lan txukuna egiten ahalegintzen gara. Irailaren 23ra arte izango dute aukera herritarrek izena emateko eta urriaren 1arekin hasiko ditugu klaseak.

Zein eskaintzarekin egingo du topo, euskara ikasteko asmoz, zuengana gerturatzen denak?

Maila guztietako aukerak izango ditu, A1etik hasi eta C2 mailara bitarte. Ordutegiak eta maila kontuan hartuta, talde bat egokituko zaio ikasleari. Autoikas-kuntzarako aukera ere izango da: programazioa eta lanak etxean bideratzen ditu ikasleak, baina astean behin aurrez aurreko tutoretza bat izango du, baita mintza-saioa ere, ahazkoak praktikatzeari begira. Pertsonalizatuagoa da, ordutegiekin arazoak dituztenentzat aukera aproposa. Dena dela, modu presentzialean etortzen denak probetxu handiagoa ateratzen diola iruditzen zaigu, talde-giroa edo parte-hartzea sortzen delako. Horrez gain, eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen ditugu, hiru hilabetez behin. Ez da bakarrik teoria ikastea, euskal kulturaren sartzeari ere bada.

Udalarekin elkarlanean gabil-tza, merkatarientzako ikastaroa ateratzeko eta ea guraso-taldeak ere ateratzen ditugun, azkenal-

dian kosta egin baitzaigu gurasoak euskaltegietara gerturatzea. AISA ikastaroa ere egongo da aukeran, atzerriko jatorria duten herritarrei begira. Era berean, etorkinak ohiko taldeetan sartzen ahalegintzen gara, onuragarria baita halako bereizke-

tarik egin gabe denak talde berean egotea. Azkenean, hizkuntza ikastea da helburua. Egia da, batzuetan, behar bereziagoak izaten dituztela, batez ere, etorri berriak direnek. Baina hemen pare bat urte daramanak ere har dezake AISA ez den hasierako mailako ikastaroa.

Ikastetxeetarako aipagarria da, La Sallerekin elkarlanean bigarren urtez antolatuko dugu 16-18 urte bitarteko ikastaroak, C1 maila indartzeari begira. Iaz, harrera oso ona izan zuen, lau talde egon ziren. Aurten ere, koordinazioa finduta, jarraituko du elkarlanak eta adin horretako nerabeek aukera izango dute. La Salleren kasuan, klaseak ematera joango gara, baina 16-18 urte dituen herritar orok hemen, euskaltegian, klaseak har ditzake eta dirulaguntzaz baliatu.

Mintzalaguna ere eskaintzen dugu. Batzuetan, bigarren planoan gelditzen den egitasmoa da. Euskaraz hitz egin nahi duen jendeari espazio ez formala eskaintzen dio ekimenak, klaseak hartu gabe. Andoaingen ematen da herritarrek ez dutela ingurune euskaldunik, euskaraz aritzeko. Bada, horren bitartez, espazioa sortzen da, astean behin, euskaraz hitz egiteko. Bidelaguna izango dute, euskaraz txukun moldatzen dena. Aukera izango dute, hortaz, doan, klaseak hartu nahi ez, baina euskaraz aritu nahi dutenak.

Urtero bezala, diruz laguntzen zaie euskara ikasteko prozesuan matrikulatzen diren herritarrei.

Aurten badator HABEren dirulaguntza-sistema berria: ohiko

prezioak baino merkeago izango dituzte euskara-ikastaroak. Iaz, A1 mailakoekin hasi zen eta, aurten A2koekin edukiko du segida. Bada pizgarria, maila baxuetan dabilena erakartzeko.

Iaz, Andoaingo Udalak A1 mailako ikastaroaren kostua beregain hartu zuen. Aurten ere, horretarako asmoa dago, herrian erroldatuta dauden andoaindarren artean. Gainerako mailetan, dirulaguntzak jasotzeko aukera dago, bi modutara: maila ziurtatuz gero, baldintza batzuk beteta, HABE dirulaguntza ematen du. Bestalde, maila egiaztatza iristen ez direnentzat edota baldintza guztiak betetzen ez dituztenentzat Andoaingo Udalak ere badu dirulaguntza. Kasu askotan, ehuneko ehunetan finantzatzen dute.

Berezitasunen artean, ikasturte honetan, hain justu ere, iritsiko da berrito ere KORRIKA Euskal Herriko kaleetara. Urte berezia izaten al da euskaltegientzat?

Urte berezia izaten da, bai. Antolaketa aldetik, batez ere, urtariletik martxora arte topera ibili ohi gara lanean, herrietan batzordeak antolatzen eta. Guk gure ikasleak inplikatzeko ahalegintzen gara, eta ahal dela gonbidapena luzatzen diegu korri egin dezaten, nork bere herrian, bere lekuan... Urte emankorra izaten da, polita da jasotzen dugun emaitza. Urtetik urtera, geroz eta kilometro gehiago ari gara saltzen. Horrek islatzen du, benetan, egunerokoa, kalean dagoen egoera euskaren erabilerari begira? Beste puntu bat da hori. Irrika bihurtu da KORRIKA, data berezia herritarrentzat. Sistemizatuta dugu eta gu olatu hori aprobetxatzen ahalegintzen gara, euskalgintzara gertura dadin jendea. Azkenean, Euskal Herri euskaldun bat, hiztun aktiboak sortzea dugu helburu. Eta hiztun aktiboa da euskaraz bizi dena.

Interesa duenak nola eman behar du izena? Eta informazio gehiago nahi izatekotan?

Zuzenean euskaltegira gerturatzeak aukera dute herritarrek. Telefono-zenbakia (943 59 17 04/688 74 66 43) ere badugu, deitzeko edota mezua bidaltzeko, baita helbide elektronikoa (andoain@ae.eus) ere. Besoak zabalik jasoko ditugu herritarrek, anima dadila jendea!

Euskara ikasteko dirulaguntzak

IKASTARO MOTA	DIRULAGUNTZA
A1 eta A2 maila	Doakoak.
B1, B2, C1 eta C2	Eskaera egin beharko dute ikasleek eta ikasturtearen bukaeran ikastaroaren matrikularen % 100 berreskuratu ahal izango dute, betiere % 75eko asistentzia betez gero.
AISA (kanpotik etorritakoentzako 50 orduko ikastaroak)	Doakoak.
Merkatarientzako ikastaroak	Doakoak.

Meza eta hamaiketakoa, jaiei amaiera emateko

Andramari eguna ez da ospakizun soltea izan aurtengo Sorabillako jaietan, baizik eta abuztuaren amaieran hasitakoari emandako amaiera biribila. Gazteen ekimenari esker, etorkizunean jaiari eusteko aukera irudikatzen da



Irailaren 8ko jaiari inoiz hutsik egin ez duten Arantxa Oiartzabal, Belen Urbistondo eta Angelita Artano, Jai Batzordeko kideekin. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen erretore berria den Andoni Ledesma zuzendu zuen meza, Alberto Agirre abesbatza-ko kantariak edertu zutena. Astelehen goizean, Sorabillako San Martin eliza eta arkupeak auzotarren bilgune bilakatu ziren. Ohi denez, Sorabillan su-
traia dauzkaten eta adinez aurrera doazen herritarren to-

paleku bilakatu zen hamaiketa-koa, batik bat. Andoaingo beste auzoetako hainbat herritar ere batu zen hitzordura, dena esatera. Sorabillako gazteek azken al-
dian eratu duten Jai Batzordeak antolatu zuen goiz parteko jai-
a. Batzordeko zenbait kide aritu ziren hamaiketako zerbitzatzen, eta tarteka, bertaratutakoen

eskerrak jaso zituzten, Sorabi-llako jaiei segida emateko pre-
tatu direla-eta. Animoak eman zizkieten etorkizunean ere So-
rabillako auzoaren bizigarri diren jaiak antolatzen jarrai dezaten. Izan ere, abuztuko azken as-
teburuan, auzoa jai-giroan mur-
gildu zen azken urteotan galdu-
tako jaiak berreskuratu ostean.

Tradizioa biziberritu zuten



Alberto Agirre abesbatza. AIURRI

Meza "Ama Eder Garbi", "Kanta dezagun Aingeruarekin", "Bakea" eta "Agur Jesusen Ama": kantu-sorta abestu zuten Alberto Agirre abesbatza-ko kantariak Sorabillako San Martin elizan.



Arkupetan egin zuten hamaiketakoa, meza amaitu ostean. AIURRI

Hamaiketakoa Sorabillan su-
traia dituzten eta adinez aurrera
doazen herritarren topaleku bilakatu zen irailaren 8ko ospakizuna. Mezan, lehenik, eta hamaiketakoan, ondoren.

BEZEROAREN ASTEA

Bidaia baten zozketa!

Irailaren 15etik 21era zure txartela lor dezakezu

Andoainen erosten baduzu, zure txartela lor dezakezu aste honetan

- TXARTELAK IRAILAREN 15ETIK AURRERA, AGORTU ARTE.
- ZIGILUA LORTZEKO EPERA: URRIAREN 15ERA ARTE.
- ZOZKETA: URRIAK 17, OSTIRALA.

Salkineko komertzioetan 6 zigilu ezberdinekin 2.500€ko balioa duen bidaia baten zozketan parte hartuko duzu.

ANDOAIN

S2

SALKIN

bertatik bertara

Andoainko Udalak

Andoainko Udalak

andoaINDARRA

euskaraz

"Anima dadila jendea Etxeberrira!"

KOMERIK URNIETAKO ERROMERIA-TALDEA

Etxeberriko festen lehen egunean, erromeria-doinuez gozatzeko aukera izango dute urnietarrek, Komerik taldearekin. Iluntzeko 20:30ean hasiko da hitzordua

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udako festen itzulia amaituta, sasoiko hasi du ikasturtea Komerik erromeriak. Doinu zaharrak eta berriak nahastuta, Etxeberri auzoko jaietan izango dira ostiral honetan, iluntzeko 20:30etik aurrera. Berezia zaie Joseba Arretxe Goenagari (trikitia) eta Libe Iribar Rodriguez (ahotsa eta panderoa) hitzordua, etxean bertan joko baitute. Haiekin batera izango dira taula gainean Leire Ibañez Urdangarin (baxua), Enaitz Mendizabal Elizegi (bateria) eta Noa Sarriegi Santa Cruz (ahotsa eta gitarra).

Duela zenbat ekin zion Komerik erromeriak oholta gaineko bideari?

Talde gisa, duela bi urte, hasi ginen, 2023ko irail partean. Baina, lehenengo aldiz, urte bereko uda hasieran elkartu ginen, Kris Solanok deituta, Amasa-Villabonan. Pare bat kantu prestatu genituen egun horre-



Komerik erromeria-taldea. KOMERIK

tarako. Ondoren, irailean, Komerik izenarekin taldea sortu eta kontzertuak ematen hasi ginen.

Uda izan ohi da erromeria-taldeentzat urteko sasoirik oparoena. Plazaz plaza gelditu gabe ibili al zarete?

Ondo joan da uda, kontzertu batzuk izan ditugu: Hernaniko San Joanetan, Aranon, Ergobin... Urrutira joateko aukera ere edukitu dugu, Berbintzanara, Nafarroara. Denetan eguraldiak lagundu du eta jendea azaldu da. **Oholta gainean ibilitakoak al zinenen, taldean hasi baino lehen?** Bai, musika-eskolako kontzertuen harira, baina ezberdina da. Erromerian bakoitzak bere lana du eta koordinazioa oso inportantea da. Pixkanaka, hobetzen ari gara hori, entseatze-ko gelditzen gara, Sandiusterrin, ekipoa eta bateria daukan gela bat hartzen dugu. Zaila da, bztzuetan, bost izanda, bakoitzak bere gauzak dituelako.

Zenbat eta kontzertu gehiago eman, orduan eta hobeto sentitzen gara. Hasieran, urdurtasun handiagoa sentitzen genuen eta lasaigo aritzen gara, orain. Hobeto ulertzen dugu elkar, gainera.

Doinu zein kantutegi tradizionalen lotu izan dira beti erromeriak. Oinarri horri eusten diozue edo gaur egungo melodiak ere jotzen al dituzue?

Erromeriak duen esentziari eusten diogu, baina kantu be-

rriak ere jotzen ditugu. Bietatik jotzen dugu: batetik, tradizionala, parrandan entzuten den euskal musika eta, bestetik, artista berriak, adibidez, Süne, Mirua...

Zein nolako publikoa gerturatzeko zaizue gehienbat?

Askok aldatzen da, ordutegien eta herriaren arabera. Gazte jendeak kontratatzen gaitu, gehienbat. Orduan, publikoa, nagusiki, gaztea izaten da. Hemen inguruan baldin bada kontzertua, gure gertukoak ere etortzen dira. Publikoaren arabera ere moldatzen dugu joko dugun erreperitorioa.

Berezia izango da zuotako batzuentzat ostiraleko saioa, etxean izango baitzarete.

Xoxokan eta Azkorten jo dugu, baina gure lehen aldia da herri-egunean bertan. Eskertuta gaude, Etxeberriko auzo elkar-terko kideekin, Urnietan jotzeko aukera emateagatik. Herrikoak gu ikustera etortzeko gogotsu gaude. Ordu onean izango da, 20:30ean, ea eguraldia aldeko daukagun!

Presio puntu bat dakar horrenbeste jende ezagunaren aurrean jotzeak? Edota ilusioa da nagusi?

Bietatik sentitzen dugu pixka bat... Baina, beharbada, presioa eta konpromiso gehixeago bai...! Hala ere, jotzen hasi bezala ahaztu egiten zaigu hori eta gogotsu gaude!

Anima dadila jendea Etxeberrira!

ETXEBERRIKO JAIEN EGITARAUA

URNIETA Etxeberri plaza

Etxeberri plaza jaietan murgilduko da laster. Ikasturtea hasi berritan agerpena egingo du Etxeberritxo jaietako protagonistak.

Egitaraua:

Irailak 12, ostirala

18:30 Txupinazoa.
19:00 Zezen-mekanikoa.
20:30 Komerik erromeria-taldea, zuzenean.

Irailak 13, larunbata

11:00 Diana: Txanbolin.
11:30 Lasterketa, aurpegi margoketa eta jokoak.
13:30 Herri-bazkaria.
16:30 Bingoa.
18:00 Apar festa.
18:00 Flowing DJ eta Mike DJ.
19:00 Kirol jolasak.
19:30 Urdaiazpiko-ebakitzailak.
21:00 Herri-afaria.

22:30 Saturday night Flowing DJ eta Mike DJ.

Irailak 14, igandea

12:00 Txirrista irristakorra.
18:00 Zirko Txosko. Eguraldi txarrarekin Egapen.



Artxiboko irudia. AIURRI

HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

MATRIKULA OFIZIALA 2025-2026

Frantsesa **A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2***

Ingelesa **A1 - A2 - B1 - B2.1* - B2.2* - C1***

* Ikastaro erdipresentzialak ere.

MATRIKULA ZABALIK:

Irailaren 1etik aurrera

Gutxieneko adina:

Frantsesa: 14 urte 2025ean betetzea

Ingelesa: 16 urte 2025ean betetzea

Prezioa:

72,36€

IKASTURTE OSOA

www.eitolosaheo.hezkuntza.net

info@eitolosaheo.net - 943 899 622



Bilera irekia deitu zuen Txosna Batzordeak joan den ostiral iluntzean, egoera azaldu, testuinguratu, herritarrek eguneratu eta berriro ere beren erabakian berresteko. AIURRI

Ezohiko Sanmielak

Txosna Batzordeak aurtengo Sanmieletan parte hartzeari uko egiteko iragarpenak soka luzea ekarri du: gizarte eta kultur mailako hainbat eragilek bat egin eta ekitaldirik ez antolatzea erabaki dute

Erredakzioa URNIETA

Urnietan, Sanmielak hizpide hartuta, ez da giro. Eta, zoritxarrez, jaietan antzemango da aurreko asteetan Txosna Batzordearen eta Udalaren artean egon den haustura. Izan ere, ez da txosnetako giroa eta programazioa soilik etengo. Bertan behera geratuko diren ekitaldiak gehiago dira, jaietan garrantzi berezia duten hainbat herri eragilek planto egitea erabaki dutelako.

Zanpatuz, Egape, Manttale eta beste hainbat eragile gehiago

Eragina jaietan ez ezik jaien aurreko asteburuan ere nabarituriko da. Hasteko eta behin, irailaren 19rako "Hitzak dantzari" emanaldia taularatzekoa zen Egape Dantza Taldea. Ekitaldi hori ere bertan behera geratu da.

Zanpatuz mendi elkarteak, bere aldetik, irailaren 24ko emanaldia Udalarekin elkarlanean antolatzeari uko egin dio. Arra-

zoiak eman dituzte, ohar bidez: "Zanpatuz Mendi Elkartea aurtun ez da Mendi Film emanaldiko kolaboratzailea izango, irailaren 24an Saroben eskainiko diren emanaldietan. Urnietako Txosna Batzordeak elkartasun eskaera egin zigun eta Batzordeak txosnak ez jartzea erabaki ondoren, eskaera horri baiezkotzea ematea erabaki dugu.

Zanpatuz mendi elkartetik mendi film-eko emanaldiak atzeratzea proposatu diogu Udalari, ekitaldi horiek herriko festetako egutegitik kanpo egiteko, baina Udalak ekitaldia mantentzea erabaki du. Taldeko bazkide guztiei erabakiaren berri eman ondoren, zuen esku uzten dugu emanaldiak ikustera joateko erabakia".



Berdeak taldeak ez du paella-jaterik antolatuko herriko plazan. Eta, segidan, Vintage taldeak antolatzen duen bingo ere ez. AIURRI

Hainbat hitzordu, bertan behera



Poxta Zaharrek eta Aiurrik antolatutako bertso-afaria, artxiboko irudian. AIURRI

Bertso-afaria Sanmielak bezain zirraragarriak izan ohi dira jaien aurreko asteburuko hitzorduak. Horien artean da, Oianumen egiten den afaria. Aurreko hilabeteetan Sanmielen prestakuntzan antzemandako giroa ikusita, bertso-afaria atzeratzea erabaki da.



Gaztelumendi anaiak kantuan aritu ziren, iaz. AIURRI

Bertso-bazkaria Manttale euskaltzaleen elkarteak kantujira eta bazkaria antolatu ohi ditu Sanmieletan. Aurtun ez da horrelakorik izango, euskaltzaleek Txosna Batzordeak hartutako erabakiarekin bat egin dutelako.



Egape Dantza Taldeak hainbat ekitalditan parte hartu ohi du. AIURRI

Euskal dantzak Egape Dantza Taldea kultur bizitzaren ezinbesteko eragile da Urnietan eta, Sanmieletan, presentzia izan ohi du. Aurtun, halere, kideen artean egindako bozketaren ostean, parte hartzeari uko egitea erabaki dute.

Hitzak eta doinuak, Bidasoatik harago

Emanaldi berria aurkeztuko dute, urrian, Jon Garmendia "Txuria" urnietarrak zein Xabi Solano ereñotzuarrak: "Bidasoatik harago". Estreinaldia Hernanin izango da, urriaren 23an

Erredakzioa URNIETA

Hiru hamarkada daramatza Jon Garmendia "Txuria" urnietarrak Xabi Solano ereñotzuarrarekin elkarlanean sortzen. Etzakit, 4itzal edo Esne Beltzaren gisako taldeetan, orotara, 250 kantutik gorako bilduma dute osatuta, Garmendiak hitzak idatziaz eta Solanok melodiak ipiniz. Hala, nahiz eta bakarka, nor berean ere aritu, motiboa topatu dute biak batera berriro oholtza gainera igotzeko, "Bidasoatik harago" emanaldiarekin. Egileen esanetan, "zentzuak eta emozioak esnatzeko gonbidapena" da lana. Ipuin laburrak, kantuak nahiz poemak, trikitixa zein gitarra lagun, "herriaz, kulturaz, historiaz, desirez, ametsez eta maitasunez" hitz egingo dute bi protagonistek ikuskizunean: "Hegoaldetik iparraldera eta iparraldetik hegoaldera, Bidasoa ibaian barrena, hitzekin eta musikarekin jolasean arituz, entretenimendu aberasgarri bat", da ikuskizuna.

Horrela, urriaren 23an ekingo diote emanaldiaren aurkezpen-sortari, Hernaniko Biteri kultur etxean. Jarraian, lau hitzordu dituzte aurreikusita azarorako: Getxo (azarok 7), Bilbo (azarok 18), Atharratze (azarok 22) eta Gazteiz (azarok 30).



Egileen esanetan, "zentzuak eta emozioak esnatzeko gonbidapena" da aurkeztar duten lana. Ipuin laburrak, kantuak nahiz poemak eskainiko dituzte, trikitixa zein gitarra lagun. AIURRI



Lurdes Iriondo eta garai hura ezagutzeko dokumental ona da. MALUTA FILMS

"Ez gera alferrik pasako" dokumentala, Zinemaldian

Maluta* Films ekoiztetxearekin batera ondutako lana aurkeztuko du Inge Mendioroz Ibañez andoaindarrak

Erredakzioa ANDOAIN

Irizar Saria eskuratzeko hautagai, Zinemira saila irekiko du Inge Mendioroz Ibañez andoaindarrak zuzendu eta Idoia Garzes Aldazabal lasartearrak idatzitako dokumentalak: Lourdes Iriondoren ibilbidea askotariko zertzeladetatik irakurtzeko gonbitea luzatzen dio obrak ikusleari, gaiaren bueltako beste makina bat hausnarketa egitearekin batera. Sinopsiak honako hau dio: "Garai bateko zuri-beltezko argazkietan izoztua gelditu den abeslari gaztea. Kapitulua. Enkuadre baten barruan harrapatua, haren ahotsa diskoetan bezala. Ahaztuta, nonbait, ikuspuntua hautatu egiten dela. Ahaztuta, abeslaria izateaz gain, euskal kulturaren transmisioan ezinbesteko erreferentea ere badela Lurdes Iriondo. Trasmisioarentzat haurrak ezinbesteko

zirela ulertu zuen eta haiantzat idatzi zituen liburuak eta antzerkiak".

Zinemaldian, datorren astean

Filma 73. Donostia Zinemaldia-ren Zinemira saileko eskaintza-ren parte izango da, eta baita Irizar Saria eskuratzeko hauta-gaia ere. Hiru emanaldi dira:

Irailak 19, ostirala

16:00 Principe 9 aretoa.

Aurkezpena eta solasaldia.

22:45 Principe 2 aretoa.

Irailak 20, larunbata

18:15 Trueba 2 aretoa.

Artxiboko irudiek zein elkarriketatuen lekukotzek osatzen dute kontaketa-ren bizkarrezurra. Hala, hitza hartu dute, besteak beste, Koro Berasategi Iriondo abeslariaren ilobak eta Amagoia Mujika Tolaretxipi BERRIA egunkariko zuzendariak.

Bideo ikusgarria aurkeztu du Maizorri txalaparta taldeak

Leitzarar bailaran hartuko irudi apartak bildu dituzte 2025-2026ko ikastaroen berri emateko

Erredakzioa ANDOAIN

Begiraleku aparta da Amasa-Villabonako lur-eremuan kokatzen den harkaitza, Leitzarango bailaran topa daitezkeen toki miresgarri horietako bat. Kanal handia eta Oindolar batzen dituen

bidezidorrean kokatzen den harkaitzean grabatu zuten bideoa, joan zen abuztuan. Eta emaitza egun hauetan zabaldu dute: hiru minutu eta erdiko iraupena duen ikus-entzunezko aparta da. Muntaiaren parte hartu dute honakoek:

Ekaitz Olló *Tolo*, Jon Urtasun, Juan Godoy, Ianire Huizi, Josu Zubeldia, Maite Sagaseta eta Mikel Arberas.

Izen-ematea

Ikasturte berriko eskaintza-ren berri ematea zen ikus-entzunezkoa egitearen xedea. Ikastaroan parte hartzeko eman liteke izena jada, 677 153 422 telefonora hots eginez, edota, maizorri@gmail.com korreora idatzita. Irailaren 24 bitarte eman ahal izango da izena.



Dron bidez hartutako irudia. MAIZORRI

Kale-ikuskizuna sortzen dabil Aukeran

Datorren urtean egingo dute estreinaldia eta Paolo Mohovich nazioarteko koreografoaren laguntzarekin sortuko dute ikuskizuna. Antzokietatik atera eta plazara egingo du jauzi Aukeran Dantza Konpainiak bere hurrengo ikuskizunarekin

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Su txikian ari da sortzen obra Edu Muruamendiarazen taldea eta, oinarrian kale-ikuskizun batetik abiatzen den lehen aldia izango da. Sormen-prozesuan, ideiak itxuraldatuta, kontaketa makina bat bide har baditza ere, bizitzaren dualtasunaz hausnartzea du xede emanaldiak: argia eta itzala, isiltasuna eta soinua, tradizionaltasuna eta garaikidetasuna... Hala, topaketa, jolasa, erresistentzia nahiz eraldaketa gorpuztuko dituzte konpainiako zortzi dantzariak.

Bada, bidaia horretan, Paolo Mohovich zuzendari artistikoa dute bidelagun. Dantza garaiki-

dean, nazioarteko zirkuitoan ospea duen koreografoa da italiarra. Hori horrela, birritan jasoko dute haren bisita: aurreko astean, pare bat egunez adituarekin batera izan ziren Sarobe arte eszenikoen gunean ideiak zein mugimenduak zorroztzen. Bigarren, datorren urtean elkartuko dira, lana estreinatu aurreko sasoiari. Bes-

**DANTZARIEK
PAOLO MOHOVICH
ZUZENDARI
ARTISTIKOA DUTE
BIDELAGUN**

talde Ines Osinaga artista ezagunak ipiniko dio doinua ikuskizunari. Konpainiaren hitzetan artistaren melodiak "nortasun berezia eta indar emozionala" emango diote emanaldiari: "Musika beti izan da konpainiaren sorkuntza-prozesuaren funtsezko osagaia".

2026an aurkeztuko dute lana eta 2027an antzokira egokitzeko asmoa dute. Bien bitartean, Saroben, beren egoitza artistikoan izango dira buru-belarri lanean.

Itzuli ederra emanda

Sormen-lanean sartuta dabilzan arren, plazaz eta jendaurreko



Dantzariak eta, haiekin batera, Mohovich. AUKERAN

emanaldiez gozatzeko tartea hartu dute dantzariak udako sasoiari: ekainean, abuztuan nahiz irailean, Gipuzkoako, Bizkaiko zein Arabako hainbat herritan izan dira, "Amama",

"Aiurri", "Fusioak", eta "Maurizia naz" bezalako lanekin. Horrez gain, etxetik kanpo ere egin dute salto Herrialde Katalanetara, Les Preses herrian izan baitziren, Esdansa jaialdian.



Andoaingo emakumeentzako Jabekuntza Eskola

25

Udazkeneko ikastaroak

Batukada feminista
ASTELEHENAK. Urriak 13, 27, azaroak 10, 24, abenduak 22. **18:00-20:00**, Leizaran Institutua. Botapa Batukada.

DJ ikastaroa
ASTEARTEAK. Urriak 14, 21, 28, azaroak 4. **18:30-20:30**, Urigain. Ostaizka Serra (Siwanaba DJ.)

Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak
ASTEARTEAK. Urriak 7, 21, azaroak 4, 18, abenduak 2, 16. **10:00-12:00**, Arrate. Saioa Garmendia.

Arte garaikide feminista III
OSTEGUNAK. Urriak 9, 30, azaroak 6, 20, abenduak 4, 18. **18:00-20:00**, Arrate. Ainara Martin.

Mendi orientazioa
Urriak 17, ostirala (**17:00-20:30**).
Urriak 18, larunbata (**09:00-14:00**).
Urriak 19, igandea (**09:00-14:00**).
Patri Espinar.

Oinarritzko brikolaje lantegia
1. TALDEA: Azaroak 22, larunbata.
2. TALDEA: Azaroak 29, larunbata.
09:30-14:30, Urigain. Carmen Melchor.

Amatasunak feminismoa
ASTEAZKENAK. Azaroak 5, 12, 19.
18:00-20:00, Urigain. Nahia Alkorta.

Biodantza
ASTELEHENAK. Urriak 6, 20, azaroak 3, 17, abenduak 1, 15.
17:00-18:30, Urigain. Ekura (Eider Zuriarrain).

Kosmetika naturala
ASTEAZKENAK. Azaroak 26, abenduak 3, 10, 17. **18:00-20:00**, Urigain. Kris Lizarraga.

Zoru pelbikoa konjikatuz!
OSTEGUNAK. Urriak 16, 30, azaroak 13, 27. **17:00-18:30**, Urigain. Sara Majarenas.

Menopausia baino harago doan klimaterioa
ASTEAZKENAK. Urriak 8, 15, 22, 29. **18:30-20:30**, Urigain. Elene Jiménez eta Beatriz Arroyo.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala
ASTEARTERO. **16:30-18:30**, Arrate. Sorburu.

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:
jabekuntza.andoain.eus
Andoaingo Udaleko Berdintasun lantegia.
Tel. 943 300 830, luz. 380 – 385;
berdintasuna@andoain.eus
Andoaingo Udaleko ATARIA



Ezkerretik hasita, Leire Otegi, Fatima Drider, Espe Roig, Oihane Lezama, Maialen Arozena, Laila Makaoui, eta, Janet Johnson. AIURRI

Kolorez beteriko hormak

Zortzi emakumek osatzen dute “Muralismoa Andoainen” izeneko programaren bigarren edizioa. Maialen Arozenak gidatuta, herriko hainbat kale eta plazetako hormak kolorez eta irudiez dotoretzen ari dira azken hilabeteetan

Xabier Lasa ANDOAIN

Programak, artearen bidez, hiri-eremua biziberritzeaz eta edertzeaz gain, emakumeen prestakuntza eta enplegua sustatzea ditu helburu. Alde horretatik, badauka ikuspegi sozial eta integratzailea, emakumeen ahal-duntzea eta lanerako ibilbideak bultzatzen duen heinean.

Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzu Pulbikoa) eta Andoaingo Udalak bultzatzen dute egitasmoa, eta lan-orientazioko eta aholkularitzako zerbitzuak, gaitasun profesional eta pertsonalen garapena eta enplegua sustatzeko ekintzak dituzte.

Era horretan, parte-hartzaileek lanaldi partziala (% 75eko lan jarduna) aldi baterako lan-kontratuak sinatu dituzte, sei hilabeteko iraupenarekin.

Bigarren ekinaldia da oraingo hau, izan ere 2024an ere beste

zortzi emakume aritu ziren egitasmo berberarekin. Hainbat horma-irudi sortu zituzten orduan Andoaingo hainbat gunetan: KZguneko kanpoko horman, kiroldegian eta gazte-lokalean, besteak beste.

Bi aste barru, programaren amaiera

Bigarren edizio honetan, besteak beste, honako hormetan egin dute lan: Extremadura kalea (etxola elektrikoa), Galardi Haurreskola (etxola elektrikoa); Urigain etxe ondoko bide berdea (etxola elektrikoa), Gazte Loka-

la (joko eta estetika-aretoa); Ondarreta Herri Eskola (jolasguneko hormak); Leizaur parkea (pista nagusia eta atletismoko pista txikia).

Zortzikoteari bi aste geratzen zaizkio programari kito esateko, eta denbora horretan, bi horma margotzeko konpromisoa hartu dute, Ondarreta auzoko horman (baserriak eta natura) eta Arrate pilotalekuaren kanpoaldean. Azken horretan 2025eko urtarrian zendu zen Xabier Mujikaren silueta egitekoak dira. Aski ezaguna herrian, arrasto sakona utzi zuen bere galerak.

BIGARRREN URTEZ JARRAIAN, ZORTZI EMAKUME ARI DIRA PROGRAMA HORREN BAITAN LANEAN

ARRATE PILOTALEKUAN XABIER MUJIKAREN SILUETA EGITEN ARI DIRA



Galardi Haurreskolaren ondoan egin duten murala. AIURRI



Urigain kultur etxearen ondoan, Leizaurango Trentxikiko bidean. AIURRI



Egunotan Ondarretan ari dira lanean. AIURRI



Leizaur parkea kolorez beterik ageri da, asteotan. AIURRI



Mara Lasa eta Naroa Corral, aurrendenboraldian. AIURRI

Euskalduna-Urnieta, Gorengo mailako lehen jardunaldian

Bi taldeak maila eta multzo berean izango dira. Eta, gainera, lehen jardunaldian elkarren aurka ariko dira

Erredakzioa URNIETA

Gorengo mailan, Urnietak eskarmentu handia du eta ez da haztu behar igoera eskuratzeko ateetan izan zirela aurreko denboraldian. Kopan ere txukun aritu ziren, finala jokatzearaino. Bestalde, Euskaldunak aurtentortu du igoera. Maila berria izango da eta lehia berrira egokitzea izango da lehen helburua. Andoaingo taldeak debuta egingo du lehen jardunaldian, iraileko azken asteburuan. Aurrerakariak, lehen jardunaldi horretan, bizilagunak izango dira. Hots, urnietarrak.

Hiru denboraldi eta gero, berriro Gorengo mailan

Iazko jokalariek eta berriak batu dira Euskaldunara, eta Gorengo mailara jauzia emateko prest dira. Halaxe azaldu du egoera Mara Lasak: "Polita eta desberdina izango da, era berean. Beste maila bat da, adin tarte mugarik gabekoa, eta exigentzia bestelakoa izango da. Partidaz partida maila berria ezagutu eta egokitu beharko dugu".

Naroa Corral aurrelaria gogoz dago: "Astez aste lan egin behar dugu eta ea igoera berria lortzen dugun".



NOTTINGHAM FOREST

Erronka berria Garciarentzat

Espainiako Ligan ibilbide oparoa egin ostean, aurtengo denboraldia Ingalaterrako Nottingham Forest futbol-taldean abiatuko du Nahikari Garcia urnietarrak, Koloradoko (AEB) Denver Summit taldea utzita. Izan ere, 2027ra bitarte sinatu du kontratua klub estatubatuarrekin. Aurreko astean egin zuten aurkezpen-ekitaldia.

Aurrendenboraldiko txapelketa antolatu du Leizaranek



Eskubaloia berriro martxan da. AIURRI

Abuztuaren 30ean kadete eta jubenil mailako partida bana egin zuten eta, larunbat honetan, denboraldiaurreko XIV. txapelketa jokatu dute. Infantil, kadete, jubenil eta senior mailako taldeak ariko dira Alluralden eta Arraten, goizez eta arratsalde. Azken partidaren senior mailakoak ariko dira Burlataren aurka, 19:15ean hasita.

Ansaren zain dira Galarretan, txapelketari ekiteko



Ansa. ORIAMENDI

Oriamendi2010 enpresak jakinarazi duenez, Imanol Ansa Eusko Label Buruz Buruko txapelketako egungo txapeldunak irailaren 13ra arteko tarte izango du. Izan ere, min hartuta utzi zuen azken partida. Pilotaria osatze-lanetan da eta hedabideei adierazi dienez, "ahalegin guztiak" egingo ditu irailaren 13an kantxara itzultzeko.



Futbola utzi duten Asier Extremerak eta Iñigo Arruabarrenak omenaldia jaso zuten Larramendi Torneoan. Argazkian, Euskaldunako Aitor Garcia eta Saioa Telletxearekin.

Lehian murgilduko Euskalduna, larunbat honetan

Ohorezko Mailan, lehen partida etxetik kanpo jokatu dute: arratsaldeko 18:00tan hasiko da partida, Mutrikun

Erredakzioa ANDOAIN

Iazko denboraldia gogoangarria izan zen eta, asteburu honetan hasita, Euskaldunak debuta egingo du Ohorezko Mailan. Erronka handia da Setien kapitainak Aiurri aurre-denboraldiko prestaketa saioetan aurreratu bezala: "Poza handia dugu igoera lortu genuelako. Talde gaztea gara eta motibazio handia dugu aurrera jarraitzeko. Gipuzkoako mailarik onenean ariko gara, eta kirol mailako jauzia handia izango da". Debuta etxetik kanpo egingo dute, Mutrikukin, larunbat honetan. Helburua argia da: mailari egokitu eta, ahal den heinean, eustea. Izan ere, Setienen ustean, Euskaldunak eta Andoainek hori merezi dute: "Maila honetan egotea merezi dugu eta horri eustea izango da gure erronka". Kapitainak protagonismo handia izan ohi du taldeetan. Gauza onak baditu baina besteetan ere

estutzen jakin behar da. Eta une gazi nahiz gozoetan, kapitaina bere rola betetzen ahalegintzen da: "Batzuetan ez da samurra izaten kapitaina izatea baina jokalaria hauekin plazera eta pribilegioa da gidaritza lana hartzea".

Asteburu honetan, Mutrikun; datorrena, Ubitarten

Aurreko denboraldiaren bidetik, Ubitarte zelaia Andoaingo futbolzaleen bilgune izatea nahi dute. Harmailetan dozenaka lagun izatea bultzada handia izango da Gaztañagak zuzentzen duen taldearentzat. Kapitainarentzat kantxa-faktorea giltzarri izango da denboraldi berrian. Aurrekoagatik eskerrak eman eta ildo beretik jarraitzeko eskaera luzatu du Setienek: "zale-tuei eskerrak eman nahi dizkiegu babes handia eman zigutelako aurreko denboraldian. Euren babesarekin aurtengo helburua errazago beteko dugu".



Brosa lehendakaria eta Setien kapitaina, Larramendi Torneoan. AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ODOL-EMAILEAK

URNIETA Hitzordua
Gotatanta.eus webgunean sartuta eman daiteke izena.
Irailak 15, astelehena.
16:30-20:30, Gazteleku.

JAIK

URNIETA Etxeberri plaza
Etxeberri plaza jaietan murgilduko da laster. Ikasturtea hasi berritan agerpena egingo du Etxeberri txo jaietako protagonistak.
Egitaraua:
Irailak 12, ostirala
18:30 Txupinazoa.
19:00 Zezen-mekanikoa.
20:30 Komerik erromeria-taldea, zuzenean.
Irailak 13, larunbata
11:00 Diana: Txanbolin.
11:30 Lasterketa, aurpegi margoketa eta jokoak.
13:30 Herri-bazkaria.
16:30 Bingoa.
18:00 Apar festa.
18:00 Flowing DJ eta Mike DJ.
19:00 Kirol jolasak.
19:30 Urdaiazpiko-ebakitzailak.
21:00 Herri-afaria.
22:30 Saturday night Flowing DJ eta Mike DJ.
Irailak 14, igandea
12:00 Txirrista irristakorra.
18:00 Zirko Txosko. Eguraldi txarrarekin Egapen.

IRTEERA

ANDOAIN Ibilbide-gidatua
Irailaren 13an, Andoaingo guduari buruzko ibilaldi gidatua antolatu du Larramendi Bazkunak.
Irailak 13, larunbata.

AURKEZPEN

ANDOAIN BDZ taldea
Andoaingo BDZ taldeak aurkezpena egingo du Arrate pilotalekuko bilera-gelan. Hilabeteak darama herrian lanean, Israeli boikota eginez eta Palestinaren alde elkertasuna erakutsiz.
Irailak 16, asteartea.
19:30, Arrate.



Joanes Etxebeste Sarako gaztea da Pontx pailazoa. PONTX

URNIETA Pontx pailazoa
Auzo elkarteak gonbitea luzatu du: "ostiral honetan, Xoxokako eskolan barre eta kolore festa! Pontx pailazoa gure Xoxokako eskolara dator. Umorea, magia eta sorpresak etxeko txikientzat (eta ez hain txikientzat ere bai). Sarrera libre da, beraz ez galdu aukera! Etorri familiarekin eta gozatu arratsalde alai batez!".
Irailak 12, ostirala. 17:30. Xoxokako eskola, Urnieta.

ANDOAIN Hainbat ikastaro
2025-2026ko kultur ikastaroetan izena emateko epea irailaren 15ean zabalduko dute. Egur lanketa, pintura eta eskulanak, aukeran. Asteko, bi ordu eta erdiko ikastaroak izango dira eta interesatuak Basteron edo Andoain.eus gunean eman behar du izena.
Azken eguna: Irailak 25.

IKUSZIRKUS

ANDOAIN IkusZirkus
"Ardatzak" malabare-saioa, asteburu honetan.
"Leinu" zirku-emanaldia, bestalde, irailaren 19an izango da.
Irailak 13, larunbata.
18:00, Goikoplaza.



ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Jone, batzuetan
Irailak 14, igandea. 19:30.
Irailak 15, astl. 17:00, 19:30.

Los futbolisimos 2 - El misterio del tesoro pirata
Irailak 13, larunbata. 17:00.
Irailak 14, igandea. 17:00.



SINOPSIS

Jone, batzuetan
Zuzendaria: Sara Fantova. **Aktoreak:** Olaia Aguado, Josean Bengoetxea, Ainhoa Artetxe eta Elorri Arrizabalaga. **Herrialdea:** Euskal Herria (2025). **Hizkuntza:** Euskara. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 80 m.



Bilbo, maitasuna, gaixotasuna, familia

Bilbo, abuztu betean. Jonek, 20 urte, aitarekin eta Marta ahizpa txikiarekin bizi da. Joneren aitak lana utzi behar izan du parkinsonaren ondorioengatik. Aldi berean, Bilboko Aste Nagusiko jaiak hasten dira, eta horietan Jone lehen aldiz maiteminduko da. Uda honetan, Jonek Olgarekin –maiteminduko den neska– biziko duen hilezkortasunaren sentsazioaren eta aitak duen gaixotasunaren ondorioz bakarrik geratzeko beldurraren artean ibiliko da.

SINOPSIS

Los futbolisimos 2

Pakete eta lagunaren abenturak

Roberto Santiago idazlearen eta Enrique Lorenzo ilustratzailearen liburu-sorta zinemara eman dute. Oraingoan, Pakete eta Soto Alto FCKo bere kideek bereizteza den koadrila osatzen dute, baina Futbolisimoen ituna arriskuan dago: higiezin iruzur batek jokatzeko zelairik gabe utzi ditu eta herria hondamendian murgildu du. Tarteko ligan jarraitu ahal izateko, Los Justos taldeari irabazi beharko diete, aurkari zail-zailak, kapitaina apur bat "pirata" dena eta hainbat arazo sortuko dizkiena. Banku baten lapurreta batean sartuta ikusiko dute euren burua, eta Paketeren aitak, polizia ogibidez, bere lana arriskuan ikusiko du. Hori guztia gainditzeko, Futbolisimoek beren adimena zorroztea eta inoiz baino elkartuago egotea beharko dute...

Jabekuntza Eskola Urnietan

Jabekuntza Eskolaren eskaintza berria prest da eta interesatuak irailak 19 bitartean eman behar du izena Bertan bulegoan edo Urnietan. eus webgunean. Eskaintza osoa kontsulta daiteke webgunean eta informazio gehiago jaso nahi duenak berdintasuna@urnieta.eus e-postara idatzi edo telefonoz dei dezake 943 008 000 telefono zenbakira.



UDALA

Zorroztaila, Andoainen

Joxe Mari Albisu zorroztaila Andoaingo Txistoki pasealekura hurbildu zen aurreko astean. Labanak, guraizeak, aizkorak... hainbat tresna zorroztzen ditu. Etorrera iragartzeko, gainera, kartel politak ipini zituen. "Villabonako azokan izaten naiz hilabeteko lehen eta hirugarren asteartean. Eta, tarteka, Andoainera hurbilduko naiz", zioen euskara ederrean.



AIURRI

Askotariko ikastaroak

Gizarte, kultura, kirol eta osasun arloko ikastaroen eskaintza prest du Urnietako Udalak: sukaldaritza, Hip-Hop eta Jazz Dance ikastaroak daude, besteak beste, berrikuntzen artean. Eta baita joskintza, pintura, zur taila, funky eta yoga ere. Irailaren 15era bitarte egongo da aukera izena emateko Saroben, Lekaion edo Bertan herritarren arreta-bulegoan.



UDALA



Udazkeneko eskuorria. UDALA

Jabekuntza Eskolaren aurkezpen-festa

Ostegun honetan izango da, 17:00tan hasita, Urigainen. Eskaintza aurkeztuko dute bertan

Erredakzioa ANDOAIN
Zizka-mizkak eta musika tarte-ko, ostegun arratsaldean egingo dute udazkeneko Jabekuntza Eskolaren egitarauaren aurkezpena. Urteak dira Berdintasun Sailak ikastaro eta formakuntza-sorta antolatzen duela. Aukera zabala da: batukada feminista, oinarritzko brikolajea, kosmetika naturala, emakumeen elkar-gune multikulturala... "Jabekuntza Eskola harremanetarako eta esperientziarako espazioa da. Emakumeen arteko sareak sortu nahi ditugu, elkarri lagundu eta elkarrekin gozatzeko", dio eskuorriak.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Nikole Arretxe Lizaso
Irailaren 16an 5 urte beteko dituzu. Zorionak bihotza!!!

Hogar Extremeñoren bi ekitaldi, datozen egunetan

Extremadura eguna
Guadalupeko Ama Birjinari lore eskaintza eta hamaiketako, egoitzan. Irailaren 13an, larun-batarekin, 12:30ean.

"Castuas" antzerki emanaldia
Extremaduraren eta bere herri-tarren historia ikuspegi kriti-kotik jorratzen duen antzerkia. Bastero, irailaren 26an, 19:30ean. Sarrera doan.

MERKATU TXIKIA

ALOKAIRUA
Iruñeko pisu batean bi gela libre daude alokatzeko. UPNaren inguruan. Bi unibertsitateko ikasle bila gabiltza, neskak eta euskaldunak. Bestela, ez molestatu, arren. Interesatuak deitu **665 719 827** telefonora.

HEZIKETA
Zure tikiarekin daukazu harremana hobetzeko aholkuak emailez jaso nahi? (dohainik)
www.angiru.es/angiru-tribua



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ERROITZ

ALJATUAK:

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

ZIURTAGIRIA:

FSC



Etenaldirik ez Aiurri.eus webgunean



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

